

OSPAKIZUNAK ESKOLAN

Egileak:

Aitziber Garcia Ulazia
Nerea Olaziregi Martinez
Ana Bengoetxea Urbieta

AURKIBIDEA

1. PROPOSAMENA	1
1.1. Abiapuntua	1
1.2. Mugarriak	2
1.3. Bidelagunak.....	3
1.4. Euskarriak.....	3
2. UDAZKENEKO EKINOKZIOA (Airea)	4
2.1. Beldurrezko mikroipuina 1: IZAKI BELDURGARRIAK	4
2.2. Beldurrezko mikroipuina 2: IRATI BELDURTI	5
2.3. Beldurrezko mikroipuina 3: ETA ZU, ZEREN BELDUR ZARA?	7
2.4. Beldurrezko mikroipuina 4: SATORRA IZAN NAHI DUT	8
2.5. Ipuina: GAU BELTZEAN BELDURRAK AIREAN	8
2.6. Antzerki-gidoia: GAU BELTZEAN BELDURRAK AIREAN	12
3. NEGUKO SOLSTIZIOA (Ura)	17
3.1. Ipuina: GAUEKOAK ETA EGUNEKOAK	18
3.2. Antzerki-gidoia: GAUEKOAK ETA EGUNEKOAK	22
4. UDABERRIKO EKINOKZIOA (Lurra)	26
5. UDAKO SOLSTIZIOA (Sua)	28
6. URTEBETETZEETAN EGUZKIARI BIRAKA	29
7. IZENDEGI-PROPOSAMENA	30
8. BIBLIOGRAFIA	31
9. WEBGRAFIA	34

1. PROPOSAMENA

1.1. Abiapuntua

Ospakizunek eskolako eguneroko errutina hausten dute, eta, umeei zein helduoi, bestelako bizipenak izateko aukera eskaintzen digute. Elkarrekin ospatuta, gainera, kohesio soziala indartzeko tresna baliotsua dira, komunitatea sortzekoa. Horren garrantziaz jabetuta, aspaldion, zenbait ospakizunen inguruan hausnartzen ibili gara hainbat eskolatan. Gabonak, Santa Agate, Inauteriak, Aste Santua, San Juan... zer dira? Zergatik ospatzen ditugu? Eta garrantzitsuagoa, nola?

Gai honen inguruko gure zalantzak eta kontraesanak plazaratu ditugunean, eztabaida sutsu bezain interesgarriak piztu dira; izan ere, euskal tradizioarekin eta ohiturekin lotura estua duten jaiak izanda, oso errotuta ditugu.

Esku artean duzuen proposamen honekin, Euskal Herriko antzinako ohiturak berreskuratu nahi ditugu, eta gure egutegian horrenbesteko pisua duten jaiak naturaren zikloei eta elementuei lotu. Nondik datozen kontuan hartuta, gaurkotzeko edo egokitzeko gonbita egin nahi dizuegu. Guretik nahi ditugu ospatu: Euskal Herritik, eta euskaraz. Hortaz, eskola bakoitzeko testuinguruak ematen dituen aukera eta erakargarritasunaz baliatu eta jaien interpretazioa berritzeko proposamena da hau.

Era berean, ospakizun horien inguruan sentitu ohi dugun estres-, itxurakeria-, kontsumismo- eta homogeneousotasun-kutsu horretatik aldendu nahi dugu, eta, haurrei zein helduoi gozatzeko aukera emango diguten unea eta gunea eraiki. Horretarako, bakoitzaren autonomia, gaitasuna eta emozioak errespetatu beharko genituzke, nor bere eta ingurukoen bizipenei adi egonda, argazki-kamerei begira barik. Eta taldean, azken batean, hezkuntza-komunitatea elkartzeko aukera ematen duen une pribilegiatu hori mimo handiz zaindu nahi dugu.

Bidea egiten hasi gara. Oztopoak izango ditugu, baina, elkarrekin joanda, errazago gaindituko ditugu. Bazatozte? Goazen!

1.2. Mugarriak

Bide honetan hainbat mugarri jarriko ditugu, ibilbideari zentzua emateko.

a) Naturaren zikloekin konektatzea

Urteko ospakizunek lotura zuzena dute Lurrarekin eta Eguzkiarekin, nahiz eta gaur egun bestelako ohiturek estalita bizi ditugun. Gure erronka jaien jatorria arakatu eta berriz ere plazaratzea izango da.

b) Euskal Herriko aspaldiko ohiturak ezagutzea

Nola ospatzen ziren data berezi horiek elizak, globalizazioak eta kontsumismoak dena irentsi baino lehen? Zein ziren komunitatea eraikitzeko antzinako erritualak?

c) Euskararekin bizipen positiboak izatea

Euskararekiko motibazioa bizipenetatik eraikitzen da. Euskaraz gozatutako festa batek arrastoa utziko du, eta hizkuntzarekin lotuko diren jarrera positiboak sortuko ditu.

d) Ahozko transmisioa indartzea

Ahozko transmisioa hein handi batean eten egin da, besteak beste, pantailen gehiegizko erabilerarengatik. Istorioen, ipuinen eta antzezpenen balioa aldarrikatu nahi dugu. Gehiegizko estimulazioaren eta abiadura handiaren aurrean, berriz ere erritmo geldoagoetara itzultzeko gonbidapena da gurea, norberaren sentipenekin eta hausnartzeko gaitasunarekin konektatzeko gonbidapena.

e) Ospakizunak denontzat izatea

Gaur egun, hezkuntza-komunitateetan aniztasun handia dugu (gaitasunak, jatorriak, kulturak, ohiturak, sineskerak...). Naturaren zikloekin erlazionatutako ospakizunetan, denok dugu tokia, eta, bizipen esanguratsuak ardatz izanda, parte sentitzeko aukera ere bai.

f) Irisgarritasuna zaintzea

Umeen ulermen- eta adierazmen-mailak askotarikoak dira; horregatik, eta batez ere hezkuntza-premia bereziko ikasleentzat, ikus-entzunezko euskarri gehigarriak erabiliko ditugu (piktogramak, irudiak...), ipuinak ume guztiek ulertzeko eta ondoren antzeztu ahal izateko.

g) Eskolaren eta Herriaren arteko zubiak eraikitzea

Ospakizunetan ere, eskolaren eta herri-eragileen arteko kohesioa eta elkarlana oso garrantzitsua dela uste dugu. Proposamen hau batak besteari, alegia, herriak eskolari eta eskolak herriari, egin diezaiokeen ekarpenaren parte izan daiteke.

h) Genero estereotipoak gainditzea

Estereotipoak hautsi eta rolak gainditzeko aukera emango digu proposamen honek; izan ere, generoak jaietan egoteko eta parte hartzeko modua baldintzatzen du.

i) Jasangarritasuna bultzatzea

Ospakizunen inguruan bultzatzen den kontsumismo basatitik aldendu, eta jasangarritasuna bultzatu nahi dugu. Horretarako, materialak berrerabiliko ditugu.

1.3. Bidelagunak

Hezkuntza-komunitate osoa da proposamen honen bidelaguna. Urteko ospakizunen inguruko hausnarketa egitea, eta Hezkuntza Proiektuan islatzea eskola osoari dagokio. Sortu ditugun euskarriak, batik bat HHko Bigarren Zikloko eta LHko Lehenengo Zikloko umeek erabiltzeko aproposak badira ere, edozein etapataraz egokitu daitezke.

1.4. Euskarriak

Euskarri nagusiak naturaren zikloekin lotutako marko teorikoa, ipuinak eta antzerki-gidoiak dira. Horien bitartez aukera izango dugu Eguzkiaren inguruan egiten dugun bira bakoitzeko une garrantzitsuenak ezagutzeko, lantzeko eta ospatzeko.

2. UDAZKENEKO EKINOKZIOA (Airea)

Uda-azkena: Udari agur esaten diogun unea da, eta uda eta “udakoak” agurtzeko aukera orduantxe izaten dugu. Hostoa erortzearekin batera, lurraren azken uztak jasotzeko momentua da: ereindakoa biltzeko garaia. Egunak gero eta laburragoak eta gero eta ilunagoak dira: barrura begiratzeko gonbita egiten digu urtaro honek. Urtearen heriotza prestatzen den sasoa, eguzki-orduak murrizten diren aroa eta hildakoez gogoratzen den garaia da.

Testuinguru horretan ospatu izan da Euskal Herrian eta munduko hainbat lurraldetan Gau Beltza. Hildakoen arimak etxeko berora etortzen omen dira berriz negua pasatzera. Gure zaharrek oraindik ere gogoan dute bizilagunak beldurtzeko oihal zaharrekin aurpegiak nola estaltzen zituzten gau horretan; baita, arimei bidea erakusteko —eta jendea beldurrarazteko—, kalabazak hustu, aurpegi-itxura eman, kandela txiki bat sartu, eta bide-bazterretan edota etxe-atarietan nola jartzen zituzten garaiotan.

Iluntasunak eta heriotzak sortzen duten beldurra era kolektiboan bizitzeko aukera ematen digu gau honek eskolan ere; norbera beldurtzeko eta besteak izutzeko aukera —rolak modu orekatuan kudeatuta—; eta baita gaur egun hain baztertuta dugun eta hain garrantzitsua den heriotzaren eta doluaren gaia lantzeko ere.

Hainbat herritan eta eskolatan hasiak gara galdutako antzinako ohitura horiek berpizten eta Gau Beltza edo Arimen Gaua ospatzen: kalabazak hustu, oihal zaharrak zulatu eta margotu, aurpegiak estali, kapelak ipini, arropa zaharrak jantzi... Atera dezagun beldurra plazara!

2.1. Beldurrezko mikroipuina 1: IZAKI BELDURGARRIAK

Niri egunak ematen dit beldurra, ez gauak. Egun eguzkitsuekin batera etortzen dira izaki beldurgarriak gure etxera. Askok dira eta oso zaratatsuak; horri esker, gehienetan, ihes egiteko aukera edukitzen dut.

—Hor dator bat! Ikusi egin nau! Amaaa... lagunduuu!

Bere atzapar erraldoiekin harrapatu eta airean narama. Ezin dut ezer egin, gorputza harria baino gogorrago daukat.

—Zer egingo dit munstro horrek? Jan egingo nau? Hankak moztuko dizkit? Ala, amamak eta eskapatzea lortu duten beste hainbestek kontatu legez, koloretako horma duen igerileku batera eramango nau? Zerbait egin behar dut!

Beldurrez dardarka baina barru-barruan nonbait gordeta nuen kemena atera, eta haginka egin diot atzapar batean. Erraldoiak bere kristalezko begiekin amorratuta begiratu dit eta, garrasi eginda, askatu egin nau. Airean noa, beherantz, ziztu bizian.

—Aaaah! Plast! uretara erori naiz, eskerrak!

Libratu naiz, gaurkoz; bihar, eguzkiarekin batera, berriz etorriko baitira izaki beldurgarriak beren koloretako igerilekuekin.

2.2. Beldurrezko mikroipuina 2: IRATI BELDURTI

Irati dut izena, eta “Irati Beldurti” esaten didate denek: etxeok, eskolako lagunek...

Kolpean ate bat ixten denean... aaaii!!

Ikusten ez den katu bat miauka hasten denean... aaaii!!

Hormetako itzalak, armiarmak, haizea, ekaitza... Aaaii!!

Ez dakit benetan zerk beldurtzen nauen... Azkenean, edozerk. Bata dela, bestea dela, ikara batean naiz beti!

Urriak 31 ditu gaur, ostirala, eta etxera iristean amak esan dit:

—Zure izena duen basoa ezagutzera joango gara osaba eta lehengusuarekin. Zer diozu, plan polita, ezta?

Ez dut jakin zer erantzun... Aaaii!!! Basoak ere beldurtzen nau, arratsalde batez ere, iluntzen hasten duenean.

Autoz bidaia luzea egin ostean iritsi gara Iratiko basora. Han ibilbide bat egin, eta merienda jan dugu lurrean eserita, biribilean dauden harri erraldoi batzuen ondoan.

—Iarrita deitzen da leku hau —esan du osabak.

—Aspaldi, hildakoak hemen lurperatzen zituzten —gehitu du amak.

Aaaii!! Hildakoak?? Begiak itxi egin ditut fuerte; handik desagertu eta etxean agertu nahi nuen. Bat-batean, aspaldikoak ziruditen ahotsak entzuten hasi naiz; gauza asko kontatzen dituzte eta ez dakit norenak diren. Beldurrez dardarka hasi naiz. Bitartean, lehengusua saltoka dabil eta nagusiak, beti bezala, ulertzen ez ditudan hitzak esaten.

Halako batean, ahots bat nabarmendu da. Amama batena dirudi eta honela dio:

—Irti, baso honen izena jarri zizuten eta horregatik zara gai bertako sekretuak entzuteko.

—Sekretuak? Aaaii, zelako beldurra!!

—Beldurra ez da zure etsaia. Gogoratu beti bizirik daudela beldurra sentitzen dutenak. Gorde zeuretzat basoko sekretuak; altxorak dira. Zeure baitan izango dituzu beti, oroimenaren txoko batean, nahi duzunean kontatzeko, entzun nahi dituenari oparitzeko.

Kantari itzuli naiz lehengusuarengana, aspaldiko amama horren hitzak buruan bueltaka.

—Irti!! Zertan ibili zara begiak itxita?

—Basoko sekretuak entzuten egon naiz.

—Alaa! Nik ere jakin nahi ditut! Joango gara sekretu gehiagoren bila?

—Baaii! Hartu motxila; nik linterna eta makila hartuko ditut!

Basoko asteburu hartatik, beldurtzen jarraitu dut. Zerbait aldatu da, ordea; norbaitek "Irti Beldurti" esaten didan bakoitzean hauxe erantzuten diot:

—Beldurra, bizidunen laguna! —eta mingaina ateratzen diot gero, basoko indarra barruan taupadaka.

2.3. Beldurrezko mikroipuina 3: ETA ZU, ZEREN BELDUR ZARA?

Sei urte ditut, eta autismoa daukat. Beste era batean ulertzen ditut nire inguruan gertatzen direnak, beste modu batean sentitzen ditut.

Gauza asko oso gustuko ditut: urarekin jolastea, haizearen kontra korrika egitea, zuhaitzetara igotzea, zabuan nabilenean sabelean kili-kiliak sentitzea, musika entzutea eta abestea, eguzki-izpiek kristalaren kontra jotzean egiten dituzten distirei begira denbora luzez egotea...

Baina beste gauza batzuek beldur handia ematen didate:

Bost zenbakiak, esate baterako. Zuek zenbaki soil bat ikusten duzue, baina nik izaki gaizto bat ikusten dut, kosk egiteko prest ahoa zabalik daukan izakia.

Gelako horman itsatsita dagoen egutegi handi hori, berriz, sagu-zahar bat iruditzen zait niri, hego askorekin. Edozein momentutan hegan hasi, eta buru gainean jarriko zaidala pentsatzen dut.

Ezagutzen ez ditudan lekuetara joateko esaten didatenean, gorputza gogor-gogor geratzen zait, ez baitakit handik bueltatzen jakingo dudan ala betiko galduko naizen.

Soinu batzuekin ere beldurtzen naiz; nire buruan eztanda egiten duten bonbak direla sentitzen dut.

Horregatik, askotan, belarriak eskuekin tapatzen ditut, fuerte-fuerte, edo uzkurto egiten naiz gelako armairuaren eta hormaren arteko txokoan, eta horrela lasaitzen saiatzen naiz.

Eta zu, zeren beldur zara? Eta zer egiten duzu lasaitzeko?

2.4. Beldurrezko mikroipaina 4: SATORRA IZAN NAHI DUT

Satorra izan nahi nuke batzuetan —orain, adibidez—, lur azpian ezkutatu eta, batu-batu eginda, hantxe gelditu. Horrela, ez ninduke inork inoiz topatuko. Baina, ume bat naizenez, armairuan sartu behar izan dut. Ez da gauza bera. Hemendik, zarata guztiak entzuten dira.

—Ññññññññññ baten batek gelako atea zabaldu du. Pausuak entzuten dira. Gero eta hurbilago sentitzen ditut. Pausu sendoak eta seguruak. Nire aurrean gelditu dira. Orain isiltasuna baino ez da entzuten. Amama Maiteren aholkuei jarraitu diet: “Hurbil sentitzen dituzunean, ez korrika hasi; hobe geldirik geratzen bazara”.

Amamak askotan kontatu dit poliziarengandik nola ezkutatzen zen, aitak aurpegi txarra jartzen dion arren. Eta ni ere halaxe geratu naiz: makurtuta, izoztuta, mutu, dardarari eta arnasari eusten.

Baina alferrik izan da.

—Atxilo!!! —egin du oiheratik.

Hurrengoan ezkutaleku hobea topatu beharko dut. Edo agian ez, ez naiz berriro jolas honetan ibiliko. Gorroto dut Gau Beltza!

2.5. Ipuina: GAU BELTZEAN BELDURRAK AIREAN

Auzo berri batera etorri gara bizitzera, amama hil eta gutxira. Bat-bateko kontua izan da. Ez dut lagunak agurtzeko astirik izan. Amama ere agurtu gabe joan da. “Horrelakoa da bizitza”, esan dit aitak eskola berrirako bidean.

Bai, eskola ere berria da niretzat. Gaur nire lehenengo eguna da, eta ez dut joan nahi. Etxean gelditu nahi dut. Baina ez etxe honetan, nire betiko etxean baizik. Betiko logelan, betiko jostailuekin, betiko lagunekin eta betiko amamarekin.

Gelara sartu naizenean, begira geratu zaizkit denak. Lurrean eserita daude, biribilean, eta ez dut jakin non eseri. Irakaslea hurbildu zait.

—Kaixo, Ane naiz eta hemen nik zainduko zaitut —esan dit.

Bere ondoko aulkian jartzeko keinua egin dit, bertan dagoen gutun-azal handia hartu ondoren.

—Hau Xarma da —esan die besteei. —Hemendik aurrera, gurekin egongo da. Irribarre egin dit, eta galderak egiten hasi da: zer moduz, Xarma? Pozik etorri zara? Gustuko duzu zure gela berria?

Isilik geratu naiz eta berak galdetzen jarraitu du: gaur Gau Beltza ospatuko dugu. Badakizu zer den? Aurreko eskolan, nola ospatzen zenuten?

Puff!! zenbat galdera! Ez diot bat berari ere erantzun. Ez dut hitz egiteko gogorik. Ez Anerekin, ezta beste inorekin ere. Eztarrian dudak korapiloak ez dit uzten.

—Ea ba —Ane altxatu egin da —Laster, patiora irtengo gara, beste guztiekin Gau Beltza ospatzera. Orain jantzi eta patiora eramateko gauzak prestatuko ditugu.

Builan hasi dira guztiak. Lurrean pilatuta dauden arropa zahar batzuk jantzi dituzte, eta adarrekin, hostoekin, gaztainekin eta kalabazekin jolasten hasi dira. Anek kalabazei begiak eta ahoak margotzeko esan digu, baina nik ez dut margotu nahi. Ez dut ezer egin nahi, eta txoko batean geratu naiz, gutun-azal handiaren ondoan. Betaurreko gorriak dituen ume bat hurbildu zait margo bat ematera, baina ez diot kasurik egin.

Anek kontatu digu gure aitita-amamek, Gau Beltzean beldurra uxatzeko, kalabazak hustu eta kandelak pizten zituztela. Eta orduan, amamarekin gogoratu naiz eta oso triste jarri naiz.

—Geuk ere gaur aukera dugu geure beldurrak uxatzeko. Patioan lapiko handi bat dago prest nahi duenak bere beldurrak bertan erretzeko. Ondo deritzozue?

—Baiiii! —erantzun dute guztiak.

—Ea ba, zeri diozue beldur? —Anek.

Armiarmeia diela beldur esan du ume kirrudun batek; munstroei diela beste batek.

—Nik aitari, eta gauari —egin du oihu betaurreko gorridunak.

Gelakoek papertxoetan adierazi dituzte beren beldurrak.

—Eta zuk, Xarma, zeri diozu beldur? —galdetu dit Anek.

Zuri ze axola zaizu, pentsatu dut nik, eta gelatik ihes egin dut, atzera begiratu gabe.

Pasabide luze bat zeharkatu dut, arrapaladan, amaieran dagoen atea zabaldu, eta gela ilun batean sartu naiz. Ez da ezer ikusten... Ui! Janari-usaina dago, hau gosea! Zarata egiten duen armairu baten eta hormaren artean dagoen zuloan sartu naiz, eta hantxe geratu naiz makurtuta. Nire izena entzuten dut handik eta hemendik.

—Xarmaaaaa!!! —hori Aneren ahotsa dela uste dut. Bat-batean argia piztu da, eta zuriz jantzitako neska bat ikusi dut. Medikua dirudi.

—Aaaaaahhhh —egin dugu oihu biok aldi berean, baina alde egitea lortu dut. Ez dakit nora joan. Pasabidetik datozen ahotsak gero eta hurbilago sentitzen ditut. Banoa eskaileretan behera. Zenbat eskailera dituen eskola honek! Ezin beherago jaitsi. Bukatu egin dira. Hemen ez da nire izena entzuten. Ez da ezer entzuten. Lur azpian nagoela dirudi.

Leiho txiki batetik sartzen den argi apurrari esker, mahaiak, aulkiak, apalak eta arbel zaharrak bereizten dira gela honetan. Apurtuta dagoen koltxoneta batean etzan naiz. Dardarka nago: dardara belaunetan, dardara eskuetan eta dardara ezpainetan.

Zarata bat entzun dut. Norbait dabil hor. Sagu bat izan daiteke. Ez ditut saguak gustuko. Ez da sagu bat. Ane da. Bera ere dardarka dago.

—Xarma, bihotza —esan dit. —Susto ederra eman diguzu.

Besarkatu egin nau eta, egia esateko, gustatu zait besarkatzea eta bihotza deitzea. Amamak ere horrela deitzen zidan askotan.

Gelara abiatu gara, eskaileretan gora.

—Zenbat eskailera dituen eskola honek, e? —esan dit. Eta niri irribarrea eskapatu zait.

Lagunak han daude. Builaka jarraitzen dute, elkar beldurtzen, baina betaurreko gorriduna isilik dago, niri begira. Gutun-azal handia du esku artean.

—Zuretzat da, Xarma —esan dit Anek—. Atezainak ekarri du goizean, baina ez dut astirik izan zuri emateko.

Zabaldu egin dut, eta aurreko eskolako nire lagunak argazki erraldoia ikusi dudanean, eztarriko korapiloa biguntzen hasi zait, eta begiak busti zaizkit. Hortxe daude Manex, Katy, Mikele, Lur, Dylan eta beste guztiak. Aneri eman diot, atzeko partean idatzita dagoena irakurtzeko:

“Kaixo, Xarma!

Zure falta sumatzen dugu, baina seguru gaude eskola berrian ere gauza eta pertsona interesgarriak topatuko dituzula. Etorri bisitan nahi duzunean; zure zain gaude. Besarkada erraldoia!”

Eztarriko korapiloa desegin da. Anek begi-keinua egin dit.

—Tira, joango gara patiora? —esan du— Besteak zain egongo dira.

—Xarma, oraindik garaiz zaude. Agian orain beldurren bat bota nahiko duzu lapikora.

Eta, konturatu gabe, “bai” lotsati bat atera zait. Anek ez du entzun, baina betaurreko gorridunak irribarre egin, eta izara bat eman dit.

Izararen zuloetatik patio erdian dagoen lapikoa ikusi dut, eta inguruan, jende mordo. Zuriz jantzitako emakumea eta haren lagunak ere hantxe daude. Bozgorailu handi batetik ahots bat atera da:

Xanduli Manduli Kikirriki

Beldurrek sabelean kili-kili

Agurrei beldur

Beldurrei agur

Agur joan denari eta

Ongi etorri datorrenari

Eta eltzera hurbildu gara, gure beldurrak erretzera. Errautsak eskola ondoko haltzaren azpian lurperatuko ditugula esan digu Anek.

Amamaren errautsak ere lurperatuko ditugu? Eta non? Etxekoei galdetuko diet. Hainbat toki bururatzen zaizkit.

2.6. Antzerki-gidoia: GAU BELTZEAN BELDURRAK AIREAN

Narratzailea: Xarma auzo berri batera joan da bizitzera. Bat-bateko kontua izan da. Amama hil eta gutxira. Ez du lagunak agurtzeko astirik izan. Amama ere agurtu gabe joan da. Eskola ere berria da Xarmarentzat. Gaur lehenengo eguna da, eta ez du joan nahi.

(Xarma eta bere aita oinez, eskolarako bidean.)

Xarma (haserre): Ez dut eskola berrira joan nahi. Betiko etxera itzuli nahi dut. Betiko eskolara, betiko lagunekin, betiko jostailuekin eta betiko amamarekin.

Aita: Hori ez da posible, Xarma. Amama hil egin da, eta gu auzo berri batean gaude orain. Horrelakoa da bizitza!

(Xarma eskola berriko bere gelara sartu da. Lurrean eserita, biribilean, haren gelakideak daude. Irakaslea aulki batean eserita dago. Ondoko aulkian, gutun-azal handi bat dago.)

Irakaslea (goxo): Kaixo, Ane naiz. Hemen, nik zainduko zaitut.

(Bere ondoko aulkian jartzeko keinua egingo dio, bertan dagoen gutun-azal handia hartu ondoren. Xarma bertan eseriko da.)

Ane (beste umeei begira): Hau Xarma da. Hemendik aurrera, gurekin egongo da.

Ane (Xarmari begira, irribarretsu): Zer moduz, Xarma? Pozik etorri zara? Gustuko duzu zure gela berria?

(Xarma isilik dago eta burumakur.)

Ane: Gaur Gau Beltza ospatuko dugu, badakizu zer den? Aurreko eskolan, nola ospatzen zenuten?

(Xarmak burumakur eta isilik jarraituko du; beste toki batera begira dago. Hasperen egin eta altxatu egingo da Ane.)

Ane: Ea ba. Laster, patiora aterako gara beste guztiekin Gau Beltza ospatzera. Jantzi egingo gara, eta bertara eramango ditugun gauzak prestatuko ditugu.

(Ume guztiak algaraka hasiko dira. Multzo batean botata dauden arropa zaharrak jantziko dituzte, eta adarrekin, hostoekin, gaztainekin eta kalabazekin jolasten hasiko dira.)

Ane: Kalabazei begiak eta ahoak margotu nahi dizkiezue?

(Margoak banatuko dizkie haurrei.)

(Xarma bazter batean dago. Betaurreko gorriak dituen ume bat hurbilduko zaio margo bat ematera, baina ez dio kasurik egingo.)

Ane (haurrei begira): Gau Beltzean, gure aitita-amamek, beldurra uxatzeko, kalabazak hustu eta kandelak pizten zituzten.

(Xarmak, oraingoan, Aneri begiratu, eta negarrari eutsiko dio.)

Ane: Geuk ere gaur aukera daukagu geure beldurrak uxatzeko. Patioan lapiko handi bat dago prest, nahi duenak bere beldurrak bertan erretzeko. Ondo deritzozue?

Umeak: Baiiii!

Ane: Ea ba, zeri diozue beldur?

(Umeei papertxoak banatuko dizkie.)

Umea (1): Nik armiarme.

Umea (2): Munstroei.

Betaurrekodun umea: Nik aitari, eta gauari.

(Umeak papertxoetan adieraziko dituzte beren beldurrak, eta Ane papertxoak jasotzen ibiliko da.)

Ane: Eta zuk, Xarma, zeri diozu beldur?

(Isilune luzea. Denak izoztuta egongo balira bezala. Xarmak gelatik alde egingo du korrika.)

(Xarma korrika eszenatokiaren alde batetik bestera. Halako batean, gelditu egingo da. Alboetara begiratuko du, eta makurtu. Txandaka, batetik eta bestetik ahotsak entzungo dira. Bat Anerena izango da. Jantokiko langile bat agertuko da, Xarma dagoen tokira hurbilduko da, eta biek oihu egingo dute aldi berean.)

Xarma eta jantokiko langilea: Aaahhhh!!!!

(Xarmak alde egitea lortuko du. Publikoari begira jarriko da, eskailerak jaisten ibiliko balitz bezala. Nekatuta dago eta etzan egingo da. Alboetara begiratuko du. Hotz da eta beldurtuta dago. Dardarka hasiko da. Dardara belaunetan, dardara eskuetan eta dardara ezpainetan. Zarata bat entzungo da. Xarma oso beldurtuta dago. Ane agertuko da. Bera ere dardarka dago.)

Ane: Xarma, bihotza. Susto ederra eman diguzu!

(Besarkada bat emango dio. Xarma goxo sentitzen da Aneren besoen artean. Publikoari begira jarriko dira biak, eta hankak mugituko dituzte eskailerak igoko balituzte bezala.)

(Xarma eta Ane gelara sartuko dira. Umeak iskanbila batean dabilta gelan, arropa zaharrak aldean dituztela elkar beldurtzen. Betaurreko gorriduna isilik

dago, Xarmari begira. Gutun-azal handia du esku artean. Aneri emango dio gutun-azala.)

Ane: Zuretzat da, Xarma. Atezainak ekarri du goizean, baina ez dut astirik izan zuri emateko.

(Xarmak zabalduko du, eta aurreko eskolako bere lagunen argazki erraldoia ikusiko du hunkituta. Aneri emango dio, eta Anek argazkiaren atzean dagoen testua irakurriko du, argazkia publikoari erakutsiz.)

Ane: Kaixo, Xarma! Zure falta sumatzen dugu, baina seguru gaude, eskola berrian ere, gauza eta pertsona interesgarriak topatuko dituzula. Etorri bisitan nahi duzunean, zure zain gaude. Besarkada erraldoia!

(Isilunea. Xarma irribarre batekin, hunkituta. Anek begi-keinua egingo dio.)

Ane: Tira, patiora joango gara? Besteak zain egongo dira.

Ane (Xarmari begira): Xarma, oraindik garaiz zaude. Agian orain beldurren bat bota nahiko duzu lapikora.

Xarma (lotsatuta): Bai

(Betaurreko gorridunak irribarre egin, eta izara bat eta papertxo bat emango dio Xarmari.)

(Izara jantzita, mamu bat balitz bezala irtengo da Xarma patiora, Ane eta gainerako umeekin. Patio erdian lapiko bat dago, eta inguruan eseriko dira. Bitartean, Xarmak zerbait idatziko du papertxoan.)

Narratzailea:

Xanduli Manduli Kikiriki

Beldurrek sabelean kili-kili

Agurrei beldur

Beldurrei agur

Agur joan denari eta

Ongi etorri datorrenari

(Umeak, txandaka, eltzera hurbilduko dira beren beldurra botatzera. Xarma ere bai. Pozik eta pentsakor dago. Musika ozenago entzuten hasiko da, eta dantzan hasiko dira guztiak lapikoaren inguruan.)

3. NEGUKO SOLSTIZIOA (Ura)

Udazkenaren bukaeran natura loak hartzen du, eguzkia ahuldu eta indargabetu egiten da, urteko gaurik luzeena heltzen den arte. Orduan, Eguberrietan, egun berriak jaiotzen hasten dira, apurka-apurka egunak luzatzen baitoaz.

Horixe ospatzen zuten gure arbasoek eta munduko beste hainbat herrialdetako bizilagunek; eguzki berri baten jaiotza, ziklo berri baten hasiera, naturaren berriztea, hain zuzen. Hortaz, gaur egun ere, neguari eta urte berriari ongietorria emateko aukera ematen digun garaia da. Era berean, urte zaharreko zer txar guztiak erre, eta geure burua berrizteko parada aproposa izan daiteke.

Sua izan da, ospakizun honetan ere, elementu nagusietako bat, urarekin batera. Udazkenean, basotik enbor handi bat eramaten zuten baserrira. Enbor horri, besteak beste, Subil, Eguberri-enborra, Olentzero edo Olentzaro deitzen zitzaion. Eguberrietan piztuta izaten zuten gau eta egun, ahuldutako eguzkiaren argiari eusteko, antza; baita berriztatzeko, garbitzeko, iluntasunarekin lotutako beldurrari aurre egiteko eta eguzki berria irudikatze ere. Haren errautsak gorde egiten ziren hazien gainean zabaltzeko, edo, ereiteko garaian, lurrari botatzeko, uzta ona izan zedin.

Olentzero hitzaren jatorriari buruz, bestalde, hainbat hipotesi eta iritzi daude antropologoen eta hizkuntzalarien artean. Horietako batek dio oles egiteko edo, beste modu batera esanda, etxerik etxe eske-kantuan ibiltzeko garaia zela (Olesen aroa).

Olentzero pertsonaiaren hasierako jatorria, izaera, itxura edota zeregina ere ez daude guztiz argi: bukatzeaz zegoen urtearen pertsonifikazioa, edo Eguberrietan etortzen omen zen naturaz gaindiko izaki zakar eta beldurgarria. Hainbat herritan Olentzero-panpina (batzuetan emakumezko itxura duena) erre egin izan da. Badirudi, beraz, Olentzero suarekin estuki lotua dagoela, hau da, neguko solstizioarekin.

Mari Domingiri dagokionez, gure garaian eraiki dugun pertsonaia da, gizon itxura eman diogun Olentzeroz gain, emakumezko erreferente baten beharra ikusita. Tamalez, sarritan, helburu hori bera zapuzten dugu, Olentzeroren bikotekide edo laguntzaile gisa irudikatuta, eta ez identitate propioa eta protagonismo bera duen pertsonaia gisa.

Horregatik, eskoletako ospakizunetan ditugun Olentzero eta Mari Domingiri buruzko hausnarketa egitea interesgarria litzateke, aldarrikatu nahi ditugun pertsonaiak eraikitzeko: nolakoa da gure eskolako Mari Domingi? Zer-nolako rola du? Eta Olentzero? Zer itxura du? Ikazkin zakarrarena ala bizarzuridun aitita goxo batena?

Era berean, kantak berrikustea garrantzi handikoa da, ospakizun horren jatorriarekin eta eskolako hezkuntza-proiektuarekin ahalik eta koherenteenak izateko. Esate baterako, Olentzeroren abestian, “Jesus jaio dala” abestu beharrean, “negua heldu dela” kantatu dezakegu. Mari Domingiri buruzko kantak ere hortxe ditugu: *Musua* diskoko *Mari Domingi* eta Ene Kantak taldearen *Urtaro Zuriko Emakumea*, adibidez.

3.1. Ipuina: GAUEKOAK ETA EGUNEKOAK

Kalean euria eta hotza egiten du eta aspertuta nago etxean. Ganbarara igoko naiz. Hango kutxen artean, baietz jolasteko zerbait interesgarria topatu!

Zer dio etiketa honek? A-MA-MA. Aiba! Kaxa honetan amamaren gauzak egongo dira. Nola nabaritzen dudan haren falta! Zer ote da argazki zaharren artean dagoen kutxa txiki karratu hori? Aitari galdetuko diot!

—Aitaaaaa!! Begira zer topatu dudan goian.

—Xarma, hau zinta bat da. Barruan amamaren hitzak daude gordeta, bere istorioak grabatu zituen bertan, gal ez zitezen. Entzun nahi dituzu?

—Baaaai!!! —erantzun diot emozioz gainezka.

Aitak ganbaran topatutako altxorra tramankulu arraro batean sartu, botoia sakatu, eta sast! amamaren ahotsa entzuten hasi gara:

Gaztetan, gure herria eta inguruko mendiak kutsadurak estaltzen zituen, eta zaila zen bertan arnastea. Behe-laino ilun batek estaltzen zuen den-dena egunez, ia ez genuen ikusten ondoan zer genuen. Usaina ere jasanezina zen, eta, aire garbirik ez zegoenez, eztulka pasatzen genituen orduak, tuju eta tuju. Batzuetan ezin genuen etxeko leihorik ere zabaldu, ezta arropa balkoietan eskegi ere; galtzerdiak zulatu egiten ziren, txoriak hilik agertzen ziren...

Protesta handiak antolatu genituen kalean. Agintariak, entzungor egin, eta indarra erabili zuten gure aurka. Bi hildako eta hainbat zauritu izan ziren, eta egoerak ez zuen hobera egin.

Ai ene... ematen du atzo izan zela. Zelan pasatzen den denbora! Konturatu orduko berriro ere Eguberriak. Zenbat aldatu diren! Orain dena da erosi eta erosi! Eta ez dakizue benetan zer ospatzen den. Gure herriko kondaira batek ondo azaltzen du. Entzun nahi duzue?

Aspaldi, gurean, herritarrak bi multzotan banatuta zeuden, elkarrengandik urrunduta, ezezagun bihurtzeraino. Gauekoak eta Eguneakoak deitzen zioten elkarri.

Gauekoak eguzkia ezkutatzearekin batera irteten ziren kalera, eta eguna lotarako erabiltzen zuten.

Etixeratu aurretik, eguneko izakiei buruzko istorio beldurgarriak entzuteko elkartzen ziren plazan. Lurrean eserita, biribilean, zaharrenek belaunaldi belaunaldi ikasitako kondairak kontatzen zituzten:

—Egunekoek ez dute ilerik azalean, hortz asko dituzte, zorrotz-zorrotzak; adarrak dituzte buruan eta atzapar luze-luzeak.

Egunekoak, aldiz, eguzkiarekin batera irteten ziren kalera. Ilundu baino lehen, haiek ere plazan elkartzen ziren, gaueko izakiei buruzko istorio beldurgarriak elkarri kontatzeko.

—Gauekoek ilez estalita dute gorputza, hortz asko dituzte, zorrotz-zorrotzak; adarrak dituzte buruan eta atzapar luze-luzeak.

Egunak joan eta egunak etorri, abendua iritsi zen. Urtea bukatzeaz zegoen eta Gauekoek eta Eguneakoek elkarri begiratu gabe jarraitzen zuten, batzuk besteei buruz gaizki esaka, aurreiritziak elikatzen, egunero eta gauero. Hori ikusita, Eguzkik, haserre, ez agertzea erabaki zuen.

Horrek arazo larria sortu zuen; batzuk ezin ziren kalera atera, eta besteak ezin ziren lotaratu. Istilu latzak izan ziren herrian. Eguneakoek eguzkiaren desagertzearen errua Gauekoek ekoizten zieten, eta Gauekoek, aldiz, Egunekoek.

—Lapurrak!! —zioten Gauekoek herriko plazan bilduta.

—Zuek izan zarete! Itzuli Eguzki!! —Eguneakoek leihotik oihuka.

Eztabaida sutsuaren erdian, argi distiratsu bi ikusi zituzten menditik jaisten. Herritarrak zur eta lur geratu ziren. Nortzuk ote ziren? Argiak hurbildu ahala, bi aurpegi ezezagun ikusi zituzten. Batek makila handi bat zeraman, harekin lurra jo, eta esan zien:

—Mari Domingi nauzue. Eta hau Olentzero da. Zer dela eta iskanbila hori?

—Lapurrak!! —batzuek.

—Zuek izan zarete! Itzuli Eguzki!! —besteek.

—Zer gertatu da? —galdetu zuen harrিতuta Olentzerok.

—Eguzki desagertu egin dela! —esan zuen haur batek.

Mari Domingik eta Olentzerok harridura-aurpegia jarri zuten. Aspalditik ezagutzen zuten elkar, auzokideak eta lagun onak ziren. Bata artzaina zen, eta bestea ikazkina. Oso jakintsuak ziren biak, eta naturaren sekretu ugari ezagutzen zituzten. Baina holakorik ikusten zuten lehen aldian zen.

—Mari Domingik besoak altxatu zituen, eta isil-isilik geratu ziren denak. Orduan, hauxe esan zien:

—Badakit zer egin dezakegun Eguzki itzultzeko: guztion artean su erraldoi bat

egin beharko duzue.

—Elkarlanaren bidez soilik lortuko duzue eguna eta gaua berriz ere sortzea —
gehitu zuen Olentzerok.

Herritarrak hasieran geldi geratu ziren. Gauekoak plazaren alde batean, eta
Egunekoak bestean. Baina txikienak bat-batean adarrak biltzen hasi ziren handik
eta hemendik. Gero, gazteak, eta, azkenean, zaharrenak ere batu ziren. Ohartu
ziren parekoak ez zirela uste zuten bezain beldurgarriak.

Adar multzo handi bat bildu zutenean, Mari Domingi eta Olentzero haiengana
gerturatu ziren, opari bat eskuetan.

—Tori, hemen duzue gure oparia: su txikia eta bizia. Piztu honekin batutako egur
guztia.

Eta Gauekoek eta Egunekoek, elkarrekin, su erraldoia sortu zuten plazaren
erdian. Dantzan ibili ziren suaren inguruan, saltoka eta builaka. Orduak pasatu
ziren ohartu gabe, eta suaren berotan lokartu ziren pixkanaka, umeak lehenengo,
gazteak gero, eta helduak azkenerako.

Ume baten oihuak esnatu zituen denak.

—Eguzki!! Eguzki!!

Eguzki-izpiek herria eta inguruko mendiak argitu zituzten.

Eta hala bazan, hala ez bazan... sar dadila kalabazan eta ager dadila herriko
plazan!!!

Gustatu zaizue? Elkarrekin egindako suari esker, Eguzki itzuli egin zen, eta hori

da ospatzen duguna abenduaren amaieran gure herrian. Gure arbasoen bizipena ohitura zahar bihurtu da eta, neguko solstizioan —urteko gaurik luzeenean, alegia—, suaren inguruan elkartzen gara kantuan eta dantzan, eguzkiari eta luzatzen joango diren egunei ongiatorria emateko.

3.2. Antzerki-gidoia: GAUEKOAK ETA EGUNEKOAK

Narratzailea: Aspaldi, gure herrian, herritarrak bi multzotan banatuta zeuden, elkarrengandik urrunduta, ezezagun bihurtzeraino. Gauekoak eta Eguneakoak deitzen zioten elkarri. Gauekoak eguzkia ezkutatzearekin batera irteten ziren kalera, eta eguna lo egiteko erabiltzen zuten.

(Gauekoak agertuko dira, eta lurrean eseriko dira, biribilean.)

Narratzailea: Zaharrenek belaunaldiz belaunaldi ikasitako eguneko izakiei buruzko kondaira beldurgarriak kontatzen zituzten:

Gaueko zahar bat: Egunekoek ez dute ilerik azalean, hortz asko dituzte, zorrotz-zorrotzak; adarrak dituzte buruan eta atzapar luze-luzeak (Keinu bidez adieraziko ditu ezaugarriak).

(Gauekoak desagertuko dira.)

Narratzailea: Egunekoak, aldiz, eguzkiarekin batera irteten ziren kalera. Ilundu orduko, haiek ere plazan elkartzen ziren, gaueko izakiei buruzko istorio beldurgarriak kontatzeko.

(Egunekoak agertuko dira eta lurrean eseriko dira, biribilean.)

Eguneko zahar bat (keinu bidez adieraziko ditu ezaugarriak): Gauekoek ilez estalita dute gorputza, hortz asko dituzte, zorrotz-zorrotzak; adarrak dituzte buruan, eta atzapar luze-luzeak.

(Egunekoak, altxatu, eta eszena-tokiaren alde batean jarriko dira.)

Narratzailea: Abendua iritsi zen. Gauekoek eta Egunekoek elkarri begiratu gabe jarraitzen zuten. Hori ikusita, Eguzkik, haserre, ez agertzea erabaki zuen.

(Gauekoak agertuko dira eta eszena-tokiaren beste aldean jarriko dira, Egunekoak parez pare dituztela.)

Gauekoak (denak batera oihuka): Lapurrak!!

Egunekoak (denak batera oihuka): Zuek izan zarete! Itzuli Eguzki!!

(Mari Domingi eta Olentzero agertuko dira. Mari Domingik makila bat darama, eta harekin lurra joko du. Egunekoak eta Gauekoak isildu egingo dira. Ikaratuta daude.)

Mari Domingi: Mari Domingi nauzue. Eta hau... Olentzero da. Zer dela eta iskanbila hori?

Gauekoak (denak batera oihuka): Lapurrak!!

Egunekoak (denak batera oihuka): Zuek izan zarete! Itzuli Eguzki!!

Olentzero: Zer gertatu da?

Gaueko haur batek: Eguzki desagertu egin da!

(Isilunea. Mari Domingi eta Olentzero harrিতuta, pentsakor.)

Mari Domingi (besoak altxatuta): Badakit zer egin behar den Eguzki itzultzeko: guztion artean su erraldoi bat egin behar zaio.

Olentzero: Elkarlanaren bidez soilik lortuko duzue eguna eta gaua berriz ere sortzea.

(Isilunea. Gauekoak eszena-tokiaren alde batean jarriko dira, eta Eguneakoak bestean. Geldi egongo dira, aurrez aurre. Elkarri begira mesfidati.)

(Musika 1. Hasieran, baxu, baina poliki-poliki bolumena igotzen joango da. Gauekoak eta Eguneakoak adarrak biltzen hasiko dira, eta erdian pilatuko dituzte. Lehendabizi umeak hasiko dira; gero, gazteak, eta, amaieran, guztien artean adar multzo handi bat egingo dute. Inguruan kokatuko dira publikoari bizkarra eman gabe.)

(Mari Domingi eta Olentzero eszena-tokiaren alde batetik hurbilduko zaizkie. Mari Domingik kandela bat darama.)

Mari Domingi (Gaueko haurrari): Tori, hemen duzue gure oparia: su txikia eta bizia. Piztu honekin batutako egur guztia.

(Musika 2. Kandela horrekin umeak sua piztuko du, eta Gauekoak eta Eguneakoak, elkarrekin nahasita, dantzan, saltoka eta builaka ibiliko dira, suaren inguruan. Umeak lokartzen hasiko dira; gazteak gero, eta helduak azkenerako. Elkarren ondoan eta suaren inguruan, publikoari bizkarra eman gabe.)

Gaueko haurra (bat-batean esnatu eta oihuka): Eguzki!! Eguzki!!

Narratzailea: Elkarrekin egindako suari esker, Eguzki itzuli egin zen, eta horixe ospatzen dugu abenduaren amaieran gure herrian. Gure arbasoen bizipena ohitura zahar bihurtu da eta, neguko solstizioan —urteko gaurik luzeenean—, suaren inguruan elkartzen gara kantuan eta dantzan, eguzkiari eta luzatzen joango diren egunei ongietorria emateko.

(Musika 3)

FITXA TEKNIKOA

Pertsonaiak:

-Narratzailea

- Gaueko zahar bat
- Eguneko zahar bat
- Gaueko haur bat
- Gaueko haurrak
- Gaueko gazteak
- Gaueko zaharrak
- Eguneko haurrak
- Eguneko gazteak
- Eguneko zaharrak
- Mari Domingi
- Olentzero

Atrezzoak:

- Adarrak
- Kandela
- Mari Domingiren makila

Musika:

1. *Elementuak* (Kalakan)
2. *Gure hitzak* (Mikel Laboa)
3. *Aralarko dama* (Zetak)

4. UDABERRIKO EKINOKZIOA (Lurra)

Neguko solstiziotik udaberriko ekinokziora bitartean, eguzkia indartzen hasiko da eta, harekin batera, lurra ere bai.

Garai horretako ospakizunak udaberriko naturaren berpiztearekin batera datoz, eta jarduera nagusia eske-kantuak izan ohi dira, Euskal Herrian eta munduko beste hainbat tokitan.

Neguko elikagai-eskasiak bultzatuta, lagun-taldeak atez ate errondan ibiltzen ziren, baserrietan, zer emana izango zen-eta, aurreko uztaren hondarrak agortu ez baziren behintzat. Baina, horrekin batera, jarduera horiek beste helburu batzuk ere ba omen zituzten: espiritu txarrak uxatzea eta lurra esnatzea, udaberriko uzta ona izan zedin. Horregatik dira hain ohikoak ospakizun hauetan zintzarriak, kaskabiloak, makilak...

Iturengo eta Zubietako joaldunak dira horren adierazgarri: joareak astintzen dituzte natura esnatzeko, eta haren gaitzak uxatzeko, antza. J.A. Urbeltz antropologoaren hitzetan, udaberrian izurriterik ez izateko, inauterietan, mozorrotu edo zomorrotu egiten ziren, hau da, intsektu bilakatzen ziren, eta eske-kantuan ibiltzen ziren. Etxeetan, jana edo zerbait ematen zieten, eta plazan dantzak, musika, zarata, sua... egiten zuten zomorroak uxatzeko. Garai horretan, inauste-lanak egiten ziren, zomorroak larba diren artean garbitzeko. Jardun horretatik omen datoz *inauteri* hitza eta mendez mende iraun duen ospakizuna.

Eske-kantuko kopletan, orain gehien bat, Santa Agateri egiten zaio gorazarre Elizaren eraginez. Eskoletan, hortaz, eske-kantuan ibiltzeko ohiturari eutsi, eta jatorrizko izaera berreskuratzea da gure proposamena: koplen letrak berrikusi edo eraldatu, eta gaur egungo kantuekin osatzea. Esate baterako, Pirritx eta Porrotxen *Musua* diskoan *Oles Oles* eta *Ipuintxo*a kantak aproposak dira.

Eske-kantuekin batera, inauterietako ospakizunetan hainbat ekintza egiten ziren herrietan, urtarrilean hasi eta martxo/apirilera arte. Gerra ostean ospakizun gehienak debekatu zituzten, eta asko galdu egin ziren horren ondorioz. Hala ere,

hainbat berreskuratu eta mantendu egin dira. Ospakizun horietan, askotariko elementuak agertzen dira: mozorroak, txantxak, antzezpenak, panpinak erre edo apurtzea... Barrea, dantza eta kantua dira nagusi.

Beraz, balia ditzagun inauteriak, eskoletan ere, egunerokotasunetik irteteko, eta elkarrekin kantuan eta dantzan ibiltzeko. Aukera paregabea izan daiteke sormen-prozesu aberatsak eta esanguratsuak aurrera eramateko, eta kontsumismotik eta eredu estereotipatuetatik ihes egiteko.

5. UDAKO SOLSTIZIOA (Sua)

Ekainaren 21ean, urteko egunik luzeenean eta gaurik laburrenean, eguzkia bere punturik gorenera heltzen da. Hainbat antropologo eta hizkuntzalariren ustez, *ekain* hitzak hori adierazten du (eki+gain= ekain).

Egun horretan, eguzkiaren omenez sua piztu eta dantza egin izan da, Euskal Herriko baserri eta herrietan. Elizgizonek suaren inguruko ospakizun horiek sorginekin eta deabruaren gurtzearekin lotu zituzten, eta jaia ekainaren 23ra pasatu zuten, San Joan bezperara. Baina erritual zaharrak nolabait mantendu dira herri gehienetan, eta horietako batzuetan akelarrea ere antzetzten dute, aipatutako debeku eta errepresioaren aurrean askatasuna aldarrikatzeko.

Edozein kasutan, sua, berriz ere, gaitzak erretzeko, izurriteak uxatzeko, eta bizia berriztatzeko elementua dugu. Dantzak eta kantuak ere oso presente daude ospakizun horretan. Hainbat herri eta eskolatan, Sorgin-dantza eta Erre Zenituzten Sorginak dantzekin ospatzen dute. Aukera ona izan daiteke dantza horiek zein beste batzuk ikasteko.

Udako solstizioa ikasturte-bukaerarekin batera dator. Zikloari amaiera emateko, eskolan ere, sua egin dezakegu gure zer txarrak erretzeko, eta haren inguruan dantza egiteko. Udara salto egin aurretik, taldean ikasturtearen balantzea egin dezakegu; zer eraman eta zer utzi erabakitzeko. Era berean, garai aproposa da agurrei arreta jartzeko. Izan ere, ume batzuk ez dira taldean egongo hurrengo ikasturtean, taldeak nahas daitezke, udan haur batzuek elkar ikusiko dute, baina beste batzuek ez.

6. URTEBETETZEETAN EGUZKIARI BIRAKA

Urteko ospakizunei buruz jardun gara orain arte, solstizio eta ekinokzioetan oinarrituta. Baina badago beste ospakizun garrantzitsu bat: urtebetetzea, hain zuzen ere. Ume bakoitzarentzat egun berezia da, eta taldean ospatzen dugu eskoletan.

Gure proposamena, horrenbestez, urtebetetzeak naturaren zikloekin lotzea da, kasu honetan, lurraren translazioarekin. Hau da, eguzkiaren inguruan haur bakoitzak emandako birak ospatzea.

Era berean, umearen urte horretako bizipen eta gertaerak gogora ekartzea, eta familiaren zein gertuko pertsonen garrantzia azpimarratzea da gure asmoa, ospakizun honen zentzu kolektiboa azaleratzearekin batera.

Horretarako, eguzkia irudikatzen duen objektu bat jarriko dugu gelan, lau urtaroak irudikatzen dituen oinarri baten gainean (kartulinekin edo oihalekin egina, esaterako). Urteak bete dituen haurrak horren inguruan birak emango ditu (urte bakoitzeko bira bat), eta, bitartean, haren bizitzako pasarte batzuk kontatuko ditugu. Adibidez, urtebete zuenean, titia hartzen zuen; bi urte zituela, ahizpa jaio zen...

Horrela, umearen bizitzaren ipuintxoak sortuko dugu. Horretarako, aldezturik haurraren argazkiak edota etxeako idatzitako kontu aipagarriak jasoko ditugu. Bukaeran, denok elkarrekin abestu eta kandelak itzaliko ditugu.

Urteak bete dituen haurrari sarritan koroa oparitzen zaio eskoletan, eta egun horretako errege edo erregina bihurtzen dugu. Koroaren ordeztu, ospakizunari zentzua emango dion opari bat izan daiteke. Esaterako, eguzki-lorea (lepokoa, buruko zinta...), eguzkiaren indarra eta babesa adierazteko.

7. IZENDEGI-PROPOSAMENA

UDAZKENEKO EKINOKZIOA:

Gau Beltza / Arimen Gaua vs Halloween

NEGUKO SOLSTIZIOA:

Eguberriak vs Gabonak

Neguko solstizioa vs Olentzero-eguna

Neguko oporrak vs Gabonetako oporrak

UDABERRIKO EKINOKZIOA:

Oles-eguna vs Santa Agate

Inauteriak

Udaberriko oporrak vs Aste Santuko oporrak

UDAKO SOLSTIZIOA:

Udako solstizioa vs San Juan

HILABETEA:

Hilabeteak izendatzeko, hainbat euskalkik naturaren elementuei egiten diete erreferentzia. Interesgarria izan daiteke umeezin hitz horien jatorriari buruz hausnartzea eta hipotesiak egitea.

Adibidez:

Urtarril: urte-berri-hil

Azaro: aza-aro; hazi-aro

Ekain: eki-gain

Hilen izenak zenbait euskalkitan (zuzeu.eus)				
Euskara batua	Arratia (Mendebaldekoa)	Goierrri (Erdialdekoa)	Sakana (Nafarrera)	Zuberera
Urtarrilla	Urteile	Ilbeltza	Ilbeltza	Urtarila
Otsaila	Zezeile	Otsaila	Otsaila	Barantaila
Martxoa	Martie	Marsoa	Marsua	Ostaroa
Apirila	Aprile	Aprila	Apiribila	Jorraila
Maiatza	Maiatza	Maiatza	Maiatza	Epaila
Ekaina	Bagile	Garagarrila	Garagarrila	Arramaiatza/Bagila
Uztaila	Garagarrile	Uztaila	Garila	Ûztaila
Abuztua	Agustue	Aguztua	Abuztua	Agorrila
Iraila	Urrie	Agorra	Urra	Setemere/Bürüila
Urria	Urri bigarrena	Urria	Lastaia	Ûrrieta
Azaroa	Semendie	Azaroa	Azaroa	Gorotzila
Abendua	Abendue/Gabonile	Abendua	Abendua	Negila

8. BIBLIOGRAFIA

- HARTSUAGA, Juan Ignazio. *Euskal mitologia konparatua. Jentilen akabera*, Gaiak Argitaraldia, Donostia, 2004.
- CARO BAROJA, Julio. *Sobre la religion antigua y el calendario del pueblo vasco*, Txertoa, Donostia, 1984.
- BERGARA, Aritza: *Euskal Herriko mitologia. Jentilen aztarnen atzetik*, Adarmendi Euskal Kultur Elkarte, 2012.
- ZUBIAGA, Felix. *Euskal mito-erritoak eta euskara*, Ibaizabal, Zornotza, 2001.
- SATUSTEGUI, Jose M^a: *Solsticio de invierno*, Ediciones y Libros Sa, 2011.
- ETXEBARRIA, Juan Manuel. *Euskal urtea ohituraz betea*, Ibaizabal, ES, 2003.
- ETXEBARRIA, Igone; KAMIRUAGA, Akaitze. *Herri-egutegia. Negua*, Eusko Jaurlaritza, 2014.
- NABERAN, Josu. *Antzinako euskaldunen ilargi-egutegia*, Basandere, 2003.
- URBELTZ, Juan Antonio. *Los bailes de espadas y sus símbolos*, Pamiela, 2000.
- FEDERICI, Silvia. *Caliban eta sorgina. Emakumeak, gorputza eta metatze primitiboa*, Elkar, 2017.
- USANDIZAGA, Aintzane. *(la) guztia moztu eta itsats daiteke. Esther Ferrer eta Denbora*, Pamiela, 2022.

Ipuin-liburuak

- PASAMAR, Concha. *Udazken denbora*, Bookolia, Madrid, 2020.
- ALBERDI, Uxue. *Hili*, Elkarlanean - Elkarargitaletxea, ES, 2021.
- ETXANIZ, Xabier. *Hirugarrena Orduan*, Denonartean-Cenlit, 2022.

- GALLATEGI, Lur. *Gau Beltza eta ahazturaren pasabidea*, BegikoVAL, ES, 2020.
- BRUNO, Pep. *Zuhaitzetako bideak*, Fragantina, 2014.
- VALDIVIA, Paloma. *Goikoak eta behekoak*, Pamiela, 2011.
- RAMÓN, Elisa. *Ez da erreza, katagorri!* Pamiela, 2017.
- RIJKEN, Jelleke. *Agur aitona*, Tarttalo, 2018.
- BOWLEY, Tim. *Jakes eta Herio*, Txalaparta, 2019.
- BROWNE, Anthony. *Kezkamuxelak*, Pamiela, 2018.
- LLENAS, Anna. *Hutsunea*, Barbara Fiore, 2013.
- BASTERRETXEA, Garazi. *Aitite Magikoa*, Autoekoizpena, 2022.
- AMURIZA, Miren. *Bainera bete itsaso*, Elkar, 2016.
- KA, Olivier. *Nire sekretuen zuhaitza*, Tarttalo, 2014.
- SANJUANXAR. *Orantzaroa, Mari Domingi eta Olentzeroren istorioa*, Autoekoizpena, 2020.
- ALBERDI, Uxue. *Besarkada*, Elkar, 2015.
- OZAITA, Josu. *Gau Beltza*, Txalaparta, 2020.
- MITXEO, Eburne. *Gau Beltza*, Lezoko udala, 2020.
- ALONSO, Tareixa. *Zazpi antxumeak*, Txalaparta, 2018.
- GARCÍA, Ana. *Tximaokerren pikondoa*, Txalaparta, 2020.
- AÑORGA, Pello. *Olentzero eta Maridomingi*, Elkar, 2015.
- ATXUKARRO, Bakarne. *Olentzero eta Mari Domingi*, Denonartean, 2018.
- ETXEBERRIA, Jon. *Olentzero-enborra*, Elkar, 2022.

- MARTIN, Naiara. *Kanela, Kalabaza eta Gatzak*, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea, 2022.
- KAPANAGA, Bittor. *Olentzaro, sua hilda*, Zure, 1995.
- BENGUA, Inés. *Adur eta Izar euskal mitologian*, Samuraitxiki, 2014.
- PINTO, Susana. *Olentzerori buruz jakin behar duzun guztia*, Itxaropena, 2006.
- ITURBE, Arantza. *Beldurtia naiz, eta zer?*, Elkarlanean - Elkarargitaletxea.
- LABAKA, Ane. *Ezpainetakoa*, Txalaparta, 2018.
- PIRRITX, PORROTX eta MARIMOTOTS. *Amaren intxaurrak*, Katxiporreta, 2020

9. WEBGRAFIA

- EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA. *Gau Beltza*, TaPuntu, Ermua, 2023.
<https://gaubeltza.eus>
- ARAOLAZA, Oier. *Dantzan*, Codesyntax, Eibar.
<https://dantzan.eus/kidea/olentzero>
- OLENTZEROZALEEN ELKARTEA. *Olentzero*, 2020.
<https://olentzero.net>
- LEITZAKO KULTUR TALDEA. *Alke*, Leitza, 2022.
<https://leitzakultura.eus/orantzaroa>
- SANJUANXAR AUZO LOKALA. *San Juan Xar*, Iruñea.
<https://sanjuanxar.blogspot.com>